

LEKEITIO. Amankomunazgoaren barruan aurkeztu danez, beste herri txikiago batzuek adina diru jasoko dau

Dirua egoki banatzeko eskatu deutsie Aldundiari

Udalak, baina, sinatu dau gizarte zerbitzu eta egitasmoak banatzeko proiektua

Lore Bengoetxea

Lea-Artibaiko Amankomunazgoko herriak banan-banan sinatzen dabilz gizarte zerbitzu eta egitasmoak banatzeko hitzarmena. Lekeitiok baietz esan deuto akordioari; dana dala, Aldundiagaz batzartu nahi dau erizpideen ganean eztabaidatzeko. «Sinatu dogu, bai, baina ez gatoz bat. Ez dogu uste diru banaketea ondo eginda dagoenik», esan dau Zigor Txopitea Batasunako zinegotziak.

Lea-Artibaiko Amankomunazgoko herriak batera aurkeztueran, beste batzuek baino gixiagi jasoko dabe. Lekeitioko

Udalan ordezkatuta dagozan hiru alderdiek —Batasunak, EAJk eta EAK— kritikau egin ditue Banaketarako erizpideak.

Herri txikiagoek beste diru

Eusko Alkartasunako Pili Roblesek adierazo dau gaia zertan dan. «Ez gaitue herri lez hartzen, eta hori ez da bidezkoa. Gizarte hezitzaileen kasuan, esate baterako, zeragaz konturatu gara: Lekeitio baino herri txikiagoek geuk beste diru jasoko dabela. Lea-Artibai Amankomunazgoko herrietan 4.500 gazte bizi dira, eta lau milioi pezeta jasoko ditue. Hain zuzen be, 800 bizilaguneko herri batek



Lekeitiok erizpideak eztabaidatu nahi ditu Aldundiagaz. Argazkian, Batasunako zinegotzi batzuk.

GIZARTE HEZITZAILEA

«Lea-Artibaik lau milioi pezeta jasoko ditu gazte hezitzaileakaitik; herri batzuek geuk beste jasoko dabe», dino Udalak

hartuko dauen kopuru bera», nabarmendu dau EAKoak.

Hitzarmena izenpetu aurretik batzarra eskatu eutsien Aldun-

diari. «Ez eben erantzunik emon, eta, orain, barriro batu nahi dogu, Aldundiagaz eta EUDLegaz, erizpideen ganean berba egiteko. Amankomunazgo lez aurkezteak, gauzak erreztu egingo ditualakoan, azkenean holako erantzunak jaso ahal dira», dino Roblesek.

Bien bitartean, Lekeitiok gizarte zerbitzu eta egitasmoak banatzeko hitzarmena egin sinatu dau. «Derrigorrezkoa zan, bestela, diru horixe be ez gen-

dualako jasoko», gogoratu dau Zigor Txopitea Batasunakoak.

«Batzen garanean, Lea-Artibairen egoera zein dan azaldu nahi deutsagu Aldundiari», esan dau Zigor Txopiteak. Gaur egun, Lea-Artibaiko Amankomunazgoa sei herri dagoz: Ondarroa, Lekeitio, Markina-Xemein, Markin-Etxebarria, Ispaster eta Berriatua. Gaia eztabaidatzen dihardue, herririk herri, udalbatzarretan.

LABURAREN

LEKEITIO

Udalak garapen agentziaren estatutuak onartu ditu

Udalak baietz esan deutse Garapen Agentziaren estatutuei. EAK ezetzagaz erantzun badau be, Batasuna eta EAJkoen aldeko botoak nahiko izan dira proposamena aurrera atarateko. Holan, ordezkar bi izentau behar dira. Batasunatik Iñaki Gezuraga joango da. EAJkoek ez dabe oraindino euren eleduna aukeratu.

ONDARROA

'Arranondo'-ren 138. alea kalean dago

Ondarroako Arranondo al-dizkariak zemendiko alea argitaratu dau. Beste kontu batzuen artean, Lea-Artibaiko azoka nagusia, Gorbeiaiko gurutzearen 100. urteurrena, Zatozte merkataria alkaterearen aurkezpena eta Antigua-ko Ama alkatereko margo ikastaroko irakasleari egindako alkarrizketea agertzen dira.

ONDARROA. Asteburuko eguraldi eskasak jentea tabernetara erakarri dau



NEKANE AKARREGI

Kafea hartu bitartean, antzerkia ikusten

Hotza, kontra barik, lagun izan dau Ondarroako Udalak, V. Kafe Antzerki Jardunaldia antolatueran. Izan be, bariku-zapatuko ekaitzari aurre egiteko, zer hobeto tabernetako epelean antzerkia ikustea baino. Salbuespenak be egon ziran, Jai Braianen, eguraldi okerragaitik, hain zuzen be, emonaldia bertan behera gelditu zan eta. Beste ikuskizun guztietan, jentea barra-barra hurreratu

da tabernetara. Barrea eragiteaz ganera, zer pentsau be emoten eben ikuskizunok. «Badakigu guzur hutsa dana, baina, halandabe, borondatea ipinten badogu, antzerkia negar edo barre eragiteko ahalmenaren jabe da», dino Ion Iñaki Artetxe Kultura batzordeburuak. Zapatu gauean, Simulacro taldeak (argazkian) *Historias de Famas y Cronopios* antzezlanak aurkeztu eban.

AGENDEA

LEA-ARTIBAI

Goazen mendiz-mendi:

Lea-Artibaiko mendi taldeek txango bat antolatu dabe, zemendiaren 18rako. Urteerea Astorkigana-Iluntzar bitartean izango da. Amaierera, Lekeitioan bertan. Parte hartu nahi izan ezkerro, izenak emon zemendiaren 16 a baino lehen, ohiko tokietan.

LEKEITIO

Erakusketea: Barandiaran aretoan, erakusketea egongo da, 25era arte. Gaia, hauxe: *Azkue, erraldoi bakarti eta berezia*.

Argazki erakusketea: Zemendian zehar, alemanen bisitearen ganeko argazki erakusketea izango da, Resurreccion Maria Azkue ikastolan

ONDARROA

Saskibaloitxapelketea: Abenduaren 15 eta 16an, saskibaloitxapelketea izango da, Zaldupe kiroldegian. Bertan parte hartzeko Apallun edo kiroldegian emon beharko da izena, hilaren 23a baino lehen.

Erakusketea: Zemendiaren 5etik 18ra bitartean, Peruko artisautza beharrak ikusi eta erosteko aukerea egongo da, Udalaren Erakusketea aretoan. Ekitaldia, Udalak eta Coprodeli Fundazioak antolatu dabe.